

**I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA**

Arabako Foru Aldundia

**KULTURA ETA KIROL SAILA****Ekainaren 9ko 1503/2020 Ebazpena. Arabako Foru Aldundiaren museoetako arreta guneeetan publikoari zenbait ondasun saltzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoak**

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 7ko 41/2005 Foru Dekretuaren bidez, onetsi zen Arabako Foru Aldundiaren museoetako arreta guneeetan publikoari zenbait ondasun saltzearekin lotutako prezio publikoak arautzea.

Xedapen gehigarrietatik bigarrenean, Kultura eta Kirol Zuzendaritzari baimena ematen zitzaion Arabako Foru Aldundiaren museoetako arreta guneeetan saldutako ondasun berrien prezio publikoen tarifak ebazpen bidez zehazteko, liburuak foru dekretu hartako eranskinean agertzen ez baziren, eta prezio horiek ALHAOn argitaratuko zirela jasotzen zen.

Museoak berriro ireki direnez, eta ondasun berriak salgai jarriko direnez, zuzendaritza honek egokitzat jotzen du horien prezio publikoa ezartzea.

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

**EBAZTEN DUT**

Lehenengoa. Honako ondasun hauen prezio publikoa, BEZa barne, onestea:

Arkatza	1,50 euro
Algodoizko poltsa	10,00 euro
Orriak markatzekoa, magnetikoa	1,50 euro
Libreta	2,00 euro
Koaderno	1,00 euro
Kartelak	5,00 euro
Arkeologia zintzilikaria	10,00 euro
Karta jokoa	10,00 euro

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Ebazpen honek amaitu egiten du administrazio bidea. Bere aurka berraztertzeo aukerako errekurtsio aurkeztu ahal izango zaio Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari, hilabete epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo€ egunetik aurrera, edo, bestela, zuzen-zuzenean jo ahal izango da bere aurka administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren aurrean, administrazioarekiko auzien epaitegi egokian, bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Gasteiz, 2020ko ekainaren 9a

*Kultura zuzendaria*

*M<sup>a</sup> INMACULADA SÁNCHEZ ARBE*